



Distirak#3
Pablo Marte

FUSIO EREMUA

[kontakizun akroniko bat bost ataletan / mailaka \ txandaka / eta aldika / musikarekin eta apur bat arduragabea]

Oharra : Jarraian irakurriko duzuen testuan, ez naiz izango Pablo Marte. Bai: Pablo Marte jartzen du hemen, baina imajina ezazue gezurra dela. Edo, are hobeto: ez ezazue ezer imajinatu. Ahantzi nazazue. Edo, are hobeto: eduki nazazue gogoan beste era batera: aukera nazazue honako aukera hauen artean.

1. aldamenekoa naiz.
2. orain urte batzuk hemendik urte batzuetara izango zinela uste zenuen [eta ez zaren] hori naiz.
3. ipurdian miazkadak jasotzea izugarri gustukoa zuen ile menderaezineko mutil hura naiz.
4. ez naiz zinemako irakasle hori [ezta beste hura ere].
5. Surinameko juka bat naiz.
6. Julianaren wikipedia-bertsioa naiz.
7. kabalistika naiz: balistikaren aire kabala.
8. aurkikuntza erabatekoa naiz.
9. «badira *blackface* molde ez-literalak» esan zuen hura naiz
10. eremu gehienetan mespretxatzen duten hori naiz [hemen kontaktzen diren bost eremu horietan izan ezik, zeinak / spoiler \ fusioan amaitzen baitira].

Lehen Maila. Auto eremua.

Enpatia. Erlaxazioa. Lekualdatzeak. Lurraldea. Irudimena eta bidaia. [Auto]biografia. Auto[zientzia]fikzioa.

Esfir Shub¹ zinemagilearen autobiografiak [sobietar zinemagile horri buruz ikerketa egiten ari da Sabine Groenewegen, eta hari eskaini zion Hirugarren Lantalde honetako hiru topaketetako lehenengoa osatu zuen *masterclass* saioa] *Nire bizitza — Zinema* du izenburu, eta oraindik itzuli gabe dago gaztelaniara. «Nola liteke!», esan diot nire buruari, «ez ote dira, akaso, *Romanov dinastiaren gainbehera* filmaren [historiako lehenengo apropiazio-filma²] zuzendari eta muntatzailearen memoriak bostehun milioi irakurle potentzialetik gora duen

¹ Esfir Shubi (1892 -1959) buruz testu bikain bat dago Blogs&Docs webgunean. <http://www.blogsandocs.com/?p=286>

² Apropiazio-zinema deritzo, zenbait arrazoi tarteko direla. Lehenik eta behin, alde zuzenetik bazegoen material batetik aterata daudelako filmeko irudi guztiak [edo, guztiak ez badira, bai asko, behintzat]: artxibo-gorputz gutxi-asko finkatu batetik edo ikus-entzunezko molde gutxi-asko finkatu batetik [film bat, kanta bat, telebistako saio bat publizitate-iragarki bat eta abar]. Bigarrenik, irudiak eta soinuak lortzeko bidea ematen duen ekintza-moldea ere badelako apropiazioa. Ez dituzu hartzen: haiez jabetzen zara, zeureganatu egiten dituzu. *Masterclass*aren ondoren, ahots ozeneko mutil batek galdetu zuen: «Zein da norberaren proiektua egiteko besteren irudiak erabiltzeko puntu / muga etikoa?» Galdera egokia zen oso. Erantzuna bitan banatuta etorri zen. «Iturriaren arabera eta asmoen arabera». Apropiazioan [umorean bezala] funtsezkoak dira ekintzaren norabidea eta noranzkoa. Pribilegioen gailurretik ez dago apropiaziorik egiterik, eta handik egiten denari ezin dei dakiok harrapaketa edo espoliazioa beste inola. Baina [mundu honetan gertatu ohi denez, zeinetan askotariko zapalkuntzak produzitzen eta erreproduzitzen baitira eskala desberdinetan eta agertzen baitira konbinazio eta palimpsestoetan], batzuetan, nekeza izan liteke bereiztea material batez jabetzea edo *apropiatzea* noiz den erabiltzea eta noiz den abusua, gehiegikeria [edo apropiazioa noiz bihurtzen den «apropriazionismo kulturala» izendatu izan den hori / orain pare bat urte oso boladan egondako hitza, Rosalía eta flamenkoaren kasuaren harira edo \ hein txikiagoan bada ere / Bad Gyal eta jamaikar *dancehall*aren eta haren klase-diskurtsoaren benetakotasunaren harira: «Ez naiz sartuko "kalea naiz edo ez naiz kalea \ aberatsa naiz edo pobrea naiz" diskurtsoan, absurdoa baita» —esan zuen Ernesto Castrorekin izandako elkarrizketa batean— «uste dut beti izan naizela oso benetakoa alegia [...] beti hitz egin dut gertatzen zaizkidan gauzez»].

Non eta nola aurkitzen da benetakotasunaren marka: errealitatearen eta irudikapenaren arteko zibilizazio-hestea: zenbateraino izan behar du sendoa eta sakona [zintzoa]? Zenbateraino da marka hori konbentzionagarria? Benetakotasunaren oinarrian dagoen zilegitasuna eskubide bat bada, noraino iristen da? Zer muga ditu / baldin eta mugarik badu? Ernesto Castrorekin izandako elkarrizketan, auziaren konplexutasuna agerian uzten du Bad Gyalek. Lehenik, «benetakotasuna» nolabait «konbentzionagarria» da maila bateraino / hau da \ hitzartu egin daiteke / negoziatu \ [ber]egin: alderdi horretatik, ez da bereziki zaila hura sostengatzeko zilegitasuna eta hura babesteko argumentua aurkitzea. Bigarrenik, zilegitasun hori batzuetan egongo da gatazka-taulako beste puntu bateko zapalkuntza batean oinarritua / adibidez: Bad Gyal eta *dancehall*aren kasu honetan/ gizon bati ez litzaioke sekula kritika bera egingo — C. Tangana inoiz ez da izan apropiazionista modura seinalatua dominikar *dembowa* erabiltzeagatik / Ernesto Castrok nabarmendu bezala.

Diskurtsoaren forma etikoak arauan topatzen du neurria: «Norberari gertatzen zaizkion gauzez hitz egitea beti» [«bakarrik»en baliokide delarik, hor, «beti»]. Baina printzipio hori zorrotz aplikatuko bagenu, kanpoan utzi beharko genuke mundua, eta [beraz] mundutik kanpo gelditu beharko ginatke. Autobiografia bat bera ere nekez litzateke egingarria, sekula ez baikara bizi botere-harreman batean marrazten gaituzten bezain eskematikoki irudikatuta. Ez gara, izan, presentzian soilik; absentzian ere bagara. Ez dihardugu soilik egitez; ez egitez ere badihardugu. Jokabide bat aktiboa bezainbeste da pasiboa. Gure singularitasuna pluraltasunen multiploa da. Zaila litzateke topatzea une bat zeinetan soilik hitz egin eta jardungo baikenukeen gure izenean. Seguru asko, irudikatzen dugun horrekiko dugun erlazioa da gizarte-bizitzaren alderdirik abstraktuenetakoa.

Edonola ere, interesgarria da «norberari gertatzen zaizkion gauzez hitz egitea beti» araua hartzea abiapuntu modura. Agian, hartatik zein bizkor urruntzen garen egiaztatuko genuke ezer baino lehen. Partez, horixe izan litekeelako, hain zuzen, beharrezkoa: mugitzen gaituen hori: azala aldatzea: etxetik irtetea: bidaiatzea. Eta bidaia diodanean, ez naiz soilik ari gure antipoda partikularretik bereizten gaituzten milia horiek egitera / baizik eta baita mugimendu ñimiñoaz ere: lekualdatze oso txiki bat norbera dagoen tokian bertan / norbera dagoen tokitik metro batzuetara \ gertatzen zaizkigun gauzetatik oso hurbil / gertatzen zaizkigun gauzetatik oso-oso hurbil \ baina ez zehazki han.

Ardura hartu behar dugu, ez soilik kontraesanena — baita distantziarena ere.

hizkuntzen konstelazio batean aztertzeko eta hizkuntza horretara itzultzeko bezain esanguratsuak?». Eta, halaxe, astun samar jarri naiz / sareetan ikertu dut eta erdi lagun baten bidez lortu dut Cátedrako Signo e Imagen bildumaren zuzendaria nirekin elkartzea narán ratáneko bere egoitza birtualean. Hitzordurako, Esfirren gif batean *avatartu* naiz, zeinetan ageri baita Esfir Sergeya Eyzenshteynaren *Greba* muntatzen eta desmuntatzen. Ba nire erdi lagunak aurreratu zidan Signo e Imagen bildumako zuzendariak [zeinari buruz eskatzen baitit ez esatea izenik —«eta nola deituko diot, orduan?»— galdetzen diot nire erdi lagunari / eta erantzuten dit: « Simplemente : aciremA»], ba Simplemente : aciremAk [esaten dit nire erdi lagunak] argialetxean lan egiten du egunez, eta proiektu fan[z]iniko ero batean gauez: bere helburua da berridaztea [biltzea moztea konbinatzea kopianatzea lotzea itsastea ...] Hemeroren *Odisea*, Peneloperen ikuspegitik.³ Nire erdi lagunak esandakoa zuzentzen dut —«Homerorena esan nahiko duzu»— eta nire erdi lagunak nik esandakoa zuzentzen du —«Ez! Hemerorena: |he|-|me|-|ro|: funtsezko auzia baita hori haren proiektu fan[z]inikoan».⁴ Nire erdi lagunak [zeina baita nire erdi laguna baina Simplemente : aciremAren laurden laguna bakarrik] orobat

³Seguru asko jakingo duzue [berdin-berdin kontatuko dut] hogeit hamar urte dira Troiako gerra amaitu zela. Penelope Ulises noiz itzuliko zain dago [eta etxean setiatuta dauka ezkongaien gudaroste batek, zeinak hiltzat ematen baitute Odiseo eta hertsatu nahi baitute Penelope beraietako batekin ezkontzeko], eta auziari itzuri egiten dio, modu batean zeina baita Simplemente : aciremAren aburuz hiru mila urteko literaturaren historian argumentu-hasierarik bikainena: Laertes aitagarrearentzat hil-jantzia ehuntzen amaitzen duenean hartuko du erabakia. Baina [BENETAN amaitu nahi ez duenez] egunez jositakoa askatu egiten du gauez.

Simplemente : aciremA honako tesi honekin espekulatzen dabil, ero-eroan: bost axola Ulises han edo hemen izan zen: dena da Peneloperen asmakuntza narratibo bat / zeinaren izenak esan nahi baitu «semea gobernatzen duena»

⁴ «Izen batean berezkoa dena izenak traizionatzen duen hori da beti. Izenen historia, beraz, haien traizioen historia da. Nik sostengatzen dut emakumezkoa izan zela Homero [Homeros edo Homaros] —"ikusten ez duena" edo "bahitua"— izenez ezaguna den aedo itsu mitikoa. Nik baino lehenago esan zuten zenbait historialarik, hala nola Andrew Dalvyk eta Samuel Butlerrek [zeina izan baitzen, Borgesen arabera, *Odisearen* ingelesezko itzultzaile onena]. Baina haiek \ polemista eta aldizka(bisita)rizalea bata / eta hemeraitzkoa bestea \ ezin izan zuten egin, zeinek bere altueratik [eta posizio oso-oso parekoetatik], jokaldia komentatu besterik: Historiatik, telenobela batean edo futbol-partida batean bezala ikusten da traizioa: ez dago hartan esku hartzerik. Hitz egin besterik ez da egiten, eta asko hitz egiten da [komentarioa / jardun aseezina] \ sufritu egiten da eta gozatu egiten da sufritud / eta barre ere egiten da, batzuetan. [Baina] historiak ezin duen horretan, politikak behar du. Eta "zer da politika?" edo, hobeto esanda "zer egiten du politikak?". Nik oso argi daukat: "historia destraizionatu". Eta proiektu fan(z)iniko hau batik bat da destraizioko lan politiko bat. Destraizio bat, [hasteko] izen batena: Homero. Nik Hemero izenekotzat kontsideratzen dut *Odisearen* egilea —*He*: emakumezko izenordaina. Eta jada ez da soilik "ikusten ez duen emakumea" edo "emakume bahitua", baizik "egunero idazten duen emakumea" edo "egunerokoa idazten duen emakumea". Eta, niretzat [etimologiari traizio egitearen bizkar bada ere \ kontziente bainaiz, burutik eginda egonagatik ere] destraizio horrek zentzua okertzen du [egin behar duen moduan ekintza politiko orok] *Odisea* ekarria delarik/ galdera batekin: ez ote da Odiseoren bidaia Peneloperen amets bat \ Penelopek kontatzen diguna? Baina desiraren askatasunaren ametsa: beragan haragitzen dira [haragitzen dute] gorputz horiek [hasteko, Ulisesenak —zeina ez baita, hainbeste, senar absentearen gorputza, baizik eta, areago, sentsazio oso fisiko bat / oso sexuala \ Penelopek eraikitzen duena itsasoko marinelaren pasibitatearen gainean— eta haren ondotik gorputz guztiak / eskifaiaiko kideetako azkenarenera arte]. Penelope bera ere bada, halaber, agertzen diren emakume horietako bakoitza [bereziki gogoan ditut Kalipso eta Zirze] zeinaren gainean proiektatzen baitu anibalentzietan ederrena: desesperatuki maite duten emakumeak? eromen eta botere molde irrikatu bat? [Konkistatzailearen erotismo garailearen fantasia] ez ote da bihurtzen artefaktu inozo bat, bere horretan balio duen zerbait bezala goratzen duenean emakume bakoitzak bere desira? Ulises batzuen nahiz besteen *satisfyerra* bada / Penelope [narratzailea] bihurtzen da "batzuk eta besteak" horiek. Bera da deskribatzen dituen emakume guztiak. Horregatik dago hainbeste desira [Himeros] Odisean: eta horregatik izan zezakeen nire proiektu fan[z]inikoak *Odesea* izenburua».

[Simplemente : aciremAk helarazi zidan hitzaurrearen pasarte; hura halarazteaz bat, orobat sinarazi zidan konfidentzialtasun agiri bat, zeinaren arabera debekatuta neukan honako hau azaltzea: ezer ez].

kontatu dit bere bizitzako proiektua dela eta horrexegatik ez duela hura sekula amaitzeko asmorik [nazkatuta dagoela dena amaitzeaz / bere bizitzan amaitzen den orok txikituta uzten duela erremediorik gabe / *Odisearen* okerrena amaiera dela: Ulisesen itzulera : Peneloperen tarte narratiboari amaiera emateko premia patriarkala⁵]. Hala, espero dut *Simplemente* : aciremAk keinu bikoitza ikustea nire avatarraren egiteko eta desegiteko ekintzan: amaitzen ez denarekiko bere kontsakrazioa [alde batetik] eta ikuspegi hemerikoa [bestetik]. Baina berari [zeina agertzen baita gure *rendezvous virtuelera* Virginia Woolfez *avartartuta*] bost axola zaio muntatzearen eta josteko ekintzaren arteko erlazioa —metaforikoa nahiz bestelakoa—. Sinpleki: ez du nahi Penelope josten. Nazkatuta dago irudi-txoko horretaz. «Ez dit batere zirrarak sortzen, edo arratsaldea Podemosen batzar batean emateak bezain zirrara gutxi sortzen dit».⁶ Sabineek aipatutako testu bat [«edizio propioko areto bat»] aipatzen diot nik, haren avatarrarekin enpatizatzeko ahaleginean. Erantzuten dit: «bai, bai, jakina» [baina ebidenteegia da ez zaidala ari aditzen]. Ezagutzen du Esfir Shub, «baina gutxi»: *Romanov dinastiaren gainbehera* iruditzen zaio film bikaina, paturik okerrenarekin: inork ez du ikusi yotubeko bertsio negargarri batean beste inola.⁷ Orduan, esaten dit: «tira, esadazu esan behar didazuna: zoaz harira». Eta nik: «ikus dezakegu elkar?». Eta berak: «nola, elkar ikusi?». Eta, orduan, nire buruari esaten diot: «erromantikoegi agertuko ote nintzen?». Eta esaten diot [argitzeko]: «esan nahi dut... kamera konektatu / espazio birtuala partekatu / narán ratánera bidaiatu». Eta berak: «zergatik nahi izan nezake nik narán ratán zurekin partekatu?». Eta nik: «ezergatik ez [jakina]». Eta, jarraian, esaten diot: «gezurrarekiko maitasunagatik?». Eta, orduan, berak erantzuten dit: «jakina, neska, txantxetan ari naiz!». Adarjotzaile galanta da.

⁵ «[...] Inperioaren sistema kulturala baita hemen inposatzen dena: ez dago bidaia bat arrakastatsu jotzerik, baldin eta itzuleran ez badu osatzen egindako inbertsioaren zirkulua eta Ulises gauza asko da [ok] , baina axola duenerako, greziarra da: berekin darama inperioa \ ezin aska daiteke hartatik. Galtzen denean ere / inperioaren alde galtzen da: horregatik itzultzen da itzultzen denean».

⁶ Sabine Groenewegenek iritzi bera zuen, gutxi gorabehera: sinplifikazioa dela jostea muntatzearekin lotzea.

⁷ Sobiet Batasunean [hogeita hamarrekota hamarkada nahiko aurrera arte] erabiltzen zen film formatua 35 mm-ko estandarrerara egokitzearen eraginez, bururik gabe agertzen dira gorputzak hainbat planotan. «Berez, romanovtarrak fusilatu egin zituzten, baina, zineman, gillotinatuta egin zituzten», dio, txantxari, *Simplemente* : aciremAk. Elkarriketa gillotinatze gogo eman zidan niri.

Bigarren Maila. Eremu hau izendatuko dut: Zortzi(+1) mahai, bakar batean.

[*Erreminta. Tresna. Bitartekoa. Eta baita pantaila ere. Koadroa edo tableaua*].

Etsigarria da narán ratán: edonora begiratzen dudala ere, dena dago *a la antique* pixelatuta: baina nor arraio naiz ni, narán ratán bezain tokiz kanpo dagoen toki bat kritikatzeko? Mahai baten atzean zain daukat Simplemente : aciremA. Urtu egiten da haren irudia, izozkia uda beteko gau batean bezalaxe.

Hitz egin eta hitz egin eta...

«Egundoko gorputz baten modura ikusten dut mahaia» —dio. «Mahaia ez da [besterik gabe] interfazearen konbentzio bat [objektu identitario bat, topaketak sortzeko prozesuan: lur mutua, non albiz albiz jar *litezkeen* izakiak]: badira, hartan, [gutxienez] beste zortzi mahai». Bai... [tira...] Mahaiarekiko obsesio apurtxo bat badu, dirudienez...

«Bat) mahai sentibera [materialki mahai dena] eta haren biki ultrasentibera [dantzan aise has litekeen hori].

Bi) atxikien mahaia [«mukuru beteak deritzen marrazki eskizofrenikoak bezala»] zeina ez baitugu guk bera okupatzen, berak gu baizik [alderantziz]: gure gainean dago eta aurreikuspen ororen kontra desinplifikatu egiten da lantzen duten ahala: mahai honen destoleste bikoitza, honela:

[alde batetik] Hiru) mahai tresna / mahai tolesgarria \ zeinak jolas egiten baitu eta aktibatzen baititu mekanismoak / malgukiak /gadgetak [*katzenklavier* edo katuen pianoak bezala, edo mahai automatak bezala, bere baitan zituena konpartimentu bat eta / gainean \ xakeko taula bat eta / atzean \ xakelari bat, «Turkiarra» deitua, eta / «Turkiarraren» inguruan \ makina maniki eta mekanoa / ez istorio gutxi]. Mahai arriskua, inteligentzia ez-gizatiar baten aurrefigurazio bat delako / urruneko kontrolarena bezala.

[eta bestetik] Lau) mahai-mukulua edo mahai-trastea: pilatze ergela \ erosotasunik gabea / ez da ezertara prestatzen \ babesten da / uko egiten dio zerbitzu orori \ komunikazio orori [zertan dabil?]: adibidez: ohola [mahaiaren atal erabilgarria] desagertzen da, eta armazoa gelditzen da soilik [deabruak hartutako forma gisa]. Michauxek «deshumanizatua» izendatu zuen, eta esan zuen: «badago harengan zerbait izutua» / «harritua» \ «pentsa liteke geldi dagoen motor batean». Izan liteke beste mahai-arrisku bat ere / arrisku osoa bere irekitasun erabatekoan: literaltasun txundigarri bat.

Bost) mahai-koadro bat, irudikapen-planoak berrantolatzen dituen bereizketetan \ lekualdatzeetan / katalogaziotan \ markoztatuta eta gainmarkoztatuta [orain dena jarriko bagenu bezala oholaren gainean / eta ez armazoian \ eta goratuko bagenu bezala standera / apalera \ oholera / oholtzarrera \ tableau xedatzailera/ eta hortaz \ garrantzizkora: eszenara eta irudira / eta halaber mugatzen duen horretara: markoa \ *passepourtouta* / pantaila \ itxuraren proportzioa / etab.] baina non ez baitirudi oraindik ageri denik historiaren inolako hari mutur solterik edo, akaso, hari muturrik zeinetatik tira eginez askatu albainuak edo bilbea naturalizazio oso trinko edo sasigeologikoei: erakustoki batean [adibidez] erregulariki kokatutako tximeletak askotariko kolore eta formetako tximeleta espezie desberdin modura erakusten dira soilik \ ezaugarri komun bakartzat dutela denak basatiki iltzatuak izatea oholaren gainean / edo erremintak, irizpide funtzional bati \ erabilera irizpide bati jarraituz ezarriak / tailerreko plano bertikal batean \ aditzera emanaz soil-soilik zenbateraino den formaren bokazioa faktuala [forma: zain dagoen zera / zain dagoen zera: zera *zapatua*].

Sei) disezio mahai bat, zeinak aterpetzen edo markoztatzen baitu aterkiaren eta josteko makinaren [ez beste edozein makinarena, jostekoarena baizik] arteko topaketa: irudien kolisio huts bat da [ez da izango honek liluratuko ez gaituen egunik]: hari solte guztiak nahastu egiten dira hemen etengabe [zizare habia bat bezala].

Zazpi] "operazio mahai" abstraktu bat [...] zeina egituratzen baita sarrerako eta irteerako puntuen izendapenen arabera \ ebakina / juntura: ixten ditu \ / berrirekitzen ditu zauriak [non baliatu ahal izango baikenitu hari ebakiak jostura gisa]. Hauxe da mahairik zailena. Aldika nonahikoa eta trinkoa, Cheshireren katua nola.

Zortzi] denbora-mahai bat zeina [bai] baita konkomitantziaren fantasia bat, baina, batez ere, garaikidea denaren eta ezgaraikoa denaren arteko ezusteko erlazio bat: topaketen mahai bat da [eta horregatik da, hain zuzen ere, dagoeneko mahai ez den mahai bat]». ⁸

⁸ Hirugarren mailak hainbat mahai jartzen ditu jokoan. Marrek merkantziaren nozioa azaltzeko darabilen mahaia. Henri Michauxen mahai eskizofrenikoa. Mahai koadroa, zeinaren gainean espekulatu baitzuen Foucaultek Hitzak eta gauzak lanean [hari buruz idatzi zuen: «zuritasun distiratsua itzalak irensten dituen beirazko eguzkipean » edo «denboren hondotik» edo «non gurutzatzen baita hizkuntza espazioarekin»]. Lautréamonteko kondearen mahaia. Paul B. Preciadok mahai berari [«operazio mahai» deritzo] koska bat gehiago estutzea. Eta, azkenik, mahai barthesiar ezgaraiko eta bizikidea. Baina besteen gaintik daude [beste edozein baino presentago] edizio mahaiak, lan mahaiekiko erlazioan.

Edizio mahaia huts-hutsik ote da puntu *passé* bat lan mahaien objektuzko historian? Akaso mahai horietan garrantzizkoena da erremintaren eta haren jardura eremuaren arteko erlazio funtzionalen arteko inplasio bat direla kontrolaren ikuspegitik. Lan mahai bat dagoeneko baldin bada gorputz batzuek beste batzuegan duten nagusitasunaren [ez]fikzio bat [Simondonek «teknika» zeritzona], edizio mahaiak alienatu egiten du operatibotasun horren jardura eremua: bortxatu egiten du, espazioaren eta denboraren ikuspegitik, modu sinestezinean. Zeluloidean zehar irudia ikusteko begirada goratzen zuten garai bateko muntatzaileen gorputz makurtua jardura eremuaren bihurtze honen sintomatikoa da [eta sintomatikoa da, halaber, filmaren gardentasuna: aldi berean mundu osoa biltzen duen lauki txiki batean zehar ikusten duzu]: mahai honek planteatzen duena ez da irudikapenaren lan bat [antzerkia edo zinema izan litezkeen bezala / eszenaratze diren heinean] baizik eta eragiketa bat irudikapenean bertan [eta haren gainean].

Hemen amaitzen da *Simplemente* : aciremArekin izandako topaketa. Itxuraz, desegitera doa... Oliotsu bezala. Mahaian kolpe handi bat jo, eta ozen esaten dut: «Amorragarria da Esfir Shuben autobiografia argitaratu gabe egotea oraindik! Ia hamar urte daramatzazu Signo e Imagen bildumaren zuzendari [oker ez banago], eta zabor pila bat argitaratu duzu: Christopher Nolanen bioa bera ere argitaratu duzu». Eta berak [zeina baita orban bat doi-doi] esaten dit: «Egia da. Ez dago aitzakiarik. Berehala helduko diot». Eta begiratu egiten diot, apur bat sinesgogor: «Benetan?». Eta esaten dit: «Jakina, jakina». Eta erabat desegiten da. Minutu batzuk gelditzen naiz zain, ez dakit oso ongi zeren zain. Luze gelditzen naiz horrela: nolabaiteko ez-ekintza errepikakor batean, zeinak gogorarazten baitizkit Cronenbergen film bateko pertsonaia geldituak [*Existenz* – 1999]. Bug kiratsa dario guztiari, baina ez dit axola: azken batean, narán ratánen nago.

Irudikapena metaforikoa da. Napoleonen ordez, Napoleonena egiten duen antzezlea daukagu. Hori bereziki paradoxikoa gertatzen da [ez]fikzioko zinema hasiberrian, sumatzen hasten denean pertsonaia historikoaren irudiak termino errealetan bere buruari buruz duen gainbalioa. Leninen irudiak Lenin pertsonak sekula ezingo lukeen zerbait sor dezake. Muntatzea, ordea, metonimikoa da. Zatiak ordezkutzen du osotasuna. Esfir Shuben filmean AEBetako irudiek esaten digutena da horrelakoxeak direla Estatu Batuak: irudi apur batzuk gizarte oso batez mintzo dira. Jakina, muntatzaileak metaforen oste bat du erabilgarri. Badu Dreyerren filmean Falconettiren aurpegiak Joana Orleanskoarenari guztiz emanik sortzen duen metafora poetikoa. Eta orobat dauka [estatuek beste era batera egiten duten bezala] Leninen irudiaren metafora analogikoa, zeinaren Moskuko Plaza Gorriko diskurtsoa errepika baitezake nahi adina bider. Bai irudikapen metaforak bai haien gainbalioa subsumitu egiten dira muntaketaren metonimian.

Hirugarren Maila. Irudi Ta Askatasuna.

[*Etxea. Ekonomia eta lana. Sentibera denaren fabrika*].

Hauxe diost Hito Steyerlek azkenaldian gertatutako guztiaz galdetzen diodanean [12/16an jasotako mail batean]:

»Jacques Ranciere sentibera denaren fabrika bati buruz hizketan entzun baino askoz lehenago, maiz entzuten nuen [irratimaiztasunez] *Irudi ta Askatasuna* [irudien askapenerako taldea]. Ostiralero [eta larunbat batzuetan] mehatxu egiten ziguten errepresalia *ezinirudigarriekin*, irudiak basatiki esplotatzeari utzi geniezaion. Hain zuzen ere, esapide hori erabiltzen zuten [ezinirudigarri] ez bereizketa praktiko bat bilatzen zutelako irudiaren eta irudimenaren artean, baizik eta ez zutelako erreproduzitu nahi borrokatzen zuten hura bera: irudien eskubideak babestea zen kontua [zeinak baitira / hain zuzen \ hauek: 1) irudiak beste irudi batzuek besterik ezin dituzte erabili eta 2) irudi batek ere ezin lezake beste irudi bat erabili bere irudi bihurtzeraino] eta horrexegatik [era kontsekuentean] inongo errepresaliarik ezin izan liteke *ezinirudigarria* besterik: taldearen protesta ekintza oro itsua zen beti.

»Kontua ez da soilik ez zutela irudirik erabiltzen. Sortu ere ez zituzten sortzen. Irratiidazketa bidez egiten zituzten iragarpenak [hau da: iratiirakurri egiten genituen: auskalo nola]. Hitz egiten zuten [hasteko] protelariotza ikusgarri batez. Irudiak —zioten— lan-kolektibo izugarri esplotatua ziren. Hastapenetako historiaren hastapenetik izan zen horrela. "Irudirik ez bakarrik" izan zen ITAk (*Irudi Ta Askatasuna*) Columbusen [Ohio] *National Bank of Images*i erasotzeko erabilitako lehen kontsigna; eta marketineko eta publizitateko kanpaina alderdikoiei atxikitako hainbeste irudi askatu zituen, non [olde iraultzaile batek bultzatuta] matxinatu baitzen, halaber, zinemaren historiaren laurden iraingarri / errekor \ jasanezinena eta desegin baitzen, gerrilla tuberoekin bat egitean [dirudienez].

»Baina "irudi batzuek beste batzuk distira daitezten lan egiten dute" aldarrikatzen duen muntaketaren ideologia postfordistaren kontrako erasoaren ekintzarekin jo zuen goia. Une hartan ezagutu nuen ITA. Edo, hobeto esanda: haiek une hartan erabaki zuten niri ezagutzera ematea. Eta izan zen susto bat bezala / eroaldi bat bezala \ zalditik jaustea bezala / itsutze bat bezala \ ezustekoan / bat-batean: kokatu ninduten hirurogeita hamazazpi mila zortziehun eta hogeita zortzigarren tokian [hirurehun eta hogeita hamabost mila ehun eta berrogeita hamasei helburuko zerrenda batean]: hantxe ageri zen nire izena, atxikirik mespretxu [imajinal] bati eta patu bati [Azken Exmaginazioa: bete-beteko espropiazioa]. Zerrenda: egunkari ez-egunkari guztietan argitaratua [monoedizio akronoak \ estraza paperezko panfleto irregularrak / agortu ahala itzaletan irakurgarri diren kandelatoko idazkunak \ pantaila-irudi fantasmak / ...] izenburu hauxe zuen: "Esklabista eta esplotatzaileen kontra.

Irudien antolaketa paranomasiko metaplasmatiko eta epentesiko askearen alde". Sekula ez nuen nire burua sentitu epigrafe horrek ordezkaturatuta [are gehiago, *fandomekotzat* neukan nire burua \ jarraitzaile leialen taldekotzat]. Ordura arte, uste nuen jendaurrean irudiei buruz mintzatzeko nintzenean beti gelditzen zela argi zenbat maite nituen [are gehiago, munduan gehien maite nuena zirela] eta zer egiteko prest nengoen haien alde / irudien alde \ adibidez neu irudi bihurtu / irudi bat gehiago izan \ eta ez edozein: sekula ez nintzatekeen bihurtuko 4K irudi: bereizmen handian \ ni? Ehunka orrialde idatzia naiz-eta *low-cost* irudiari buruz! neronek sinesterraino defendatu dut irudi pobrea! Are gehiago: gau askotan esnatu izan naiz erabat sinetsita ez soilik irudi bat nintzela baizik eta nintzela [gainera] ezin pobreagoa [zikinena / pixelatuena eta zehaztugabeena] eta konturatzean dena amets bat izan zela \ negarrari ematen nion. Amets horietako batzuetan ñirñirka eta zerrendaz beterik ageri nintzen ni: luminantziaren maiztasun seinale modulatu bat nintzen, doi-doi. Beste batzuetan, PAL nintzen, edo are okerragoa: bost orduko VHS zinta baten LPko zazpigarren grabazioa. Ametsik ederrenetan, arlo figuratiboa abandonatzen ere ikusten nuen nire burua. Plano kroma berde bat bihurtzen nintzen, eta munduko irudi guztiak nigan igarotzen ziren / nigan irristatzen ziren \ betetzen ninduten, eta istantean hustu / sigi-saga batzuetan \ espiralean beste batzuetan / burrunba bat aurretik zetorrela batzuetan \ hodi katodikoko garai bateko telebistak piztu eta itzaltzekoaren moduko keinu hutsa nintzen batzuetan / askatu eta zarata zuri huts batean lehertzen nintzen \ eta bai: garai batean sinetsi egin nuen / konbentzituratuta nengoen ni eta nire fotokopia baten fotokopia baten fotokopia bat bereizezinak ginela \ guztiz trukagarriak / bizitzan ez nuela nik espaziorik zehartzen \ baizik ingurune batetik bestera etengabe transferitzen. Eta horregatik guztiagatik iruditzen zitzaidan oso maitea izan behar nindutela irudiek / familiartekoa banintz bezala ia. ITAren ikuspegitik, ordea, seguru asko hurbilago nengoen Bill Gatesen moduko tipo batengandik, haiengandik baino.

»Apirileko arratsalde batez izengabeko mezu bat iritsi zitzaidan, esaten zidana: ikusi zure vimeo. Ikusi nuen nire vimeo eta zer uste duzu ikusi nuela? Ezer ez.

»Hori da. Ezer ez. Bideo bakar bat ere ez. Kontua hutsean. Memoria gigak oso-osorik. Lauki-sarea hutsik. Nire filmen irudiak \ zortzi film luze bikain eta bideoarteko [edo zuk nahi bezala izendatutako horren] hogeitazatik gora *gone!* Ihes egin zuten ustezko askatasunean: orduan bai / azkenean bai \ egia balitz bezala bazela askatasuna nonbait: eta toki hori zela Irudien Paradisua. Bere garaian nireak izan zirenak [ulertuko ahal zait: nireak diot, hilekoaren mina nirea dela diodan modu berean: horrela delako eta kito] nigandik desagertu ziren [kontuz: ez soilik nire memoria / erregistro \ proiektzio eta eszena gailuetatik / nigandik baizik: nire sententzioetatik / nire itxura eta ilusioetatik \ ni egile horren fantasietatik, ni bat zeinak uste baitute askok dela izen soil bat / baina baita izen bat baino are askoz ere gutxiago / askoz ere gutxiago \ hari eusten dioten lau irudi eskas horiek dira: hura babesten duten lau irudi eskas



horiek: hori besterik ez: ia ezer ez, baldin eta lau irudiak kentzen badizkiozu: horrelako zerbait, irudirik gabe, txakurrik gabeko muturreko bat bezala da]. Baina / zintzoki \ ez nituen galdu. Hor jarraitzen dute [non? esatea zaila den bezain erraza da jakitea] —esan nahi dudana da ez dela amnesia bat edo ezabatze bat. Noiznahi ikus ditzaket [dirudienez] nire irudiak. Inoiz baino are eskuragarriago daude. Irekitze bat da [uste dut]: konsubstanziazio bat. Orain, urruneko izatasun-erlazio bat dut haiekiko, zuhaitz batekiko sentitzen dudana ahaidetasunezko kilima baten antzekoa: izatearen dimentsio guztietan nire aurretik balihoaz bezala da: nonbaiten egotekotan, guztiaren hastapenean egon behar dute.

»Irratiidatzi egin nien [ezin bainuen beste inola jo haiengana]. Eta galdetu nien nola antolatu ahal izan beharko liratekeen irudiak sozialki: irudi organiko - errespetuzkoak ekoitzi nahi nituen / hobeto esanda: parte hartu nahi nuen / lagundu nahi nuen \ haien autoerreproduzioan. Erantzun zidaten sektore moderatu batek aldarrikatzen bazuen ere irudien borrokaren helburua zela guztiek lan egin ahal izatea eskubide-berdintasunean eta baldintza-berdintasunean [edo beste era batera esanda: muntatzearen amaiera: irizpide objektiboen arabera irudien arteko korrespondentzien banaketa homogeneousatu soil eta simple bat bihurtzen da], beste sektore bat bazela, aurrekoa bezain garrantzizkoa [eta batez ere agresibo eta erradikalagoa / sexyagoa] askoz ere urrunago zihona eta eskatzen zuena egokiro “irudi guztiek borroka egitea bakar batek ere lan egin ez dezan”.
»*Irudi ta Askatasuna* oso solidarioa zen *Soinu ta Askatasunarekin* [ta alderantziz]. Horrexegatik, hirugarren kanpainatik aurrera soinuak erabiltzeari utzi zioten, eta askatu egin zituzten ordura arte erregistratu zituztenak.

»Baina gero norbaitek solidaritate bera aldarrikatu zuen *Testu ta Askatasuna* / testuen askapen taldearekiko.

Laugarren Maila. Kuarto txikia eta laugarren galdera

[Dirdira putzuplasmatikoak Sabine Groenewegenen film baten gainean]

Fanfare for naran ratan entzuten da. Putzu plasmatikoan *avartartzen* naiz. Isurtzen naiz [*bai-bai isuria*] galdera esekien agertoki honetako gorri eskarlatinazko lauzazko zoruan eta zipriztintzen naiz islez [*zergatik nago urrun \ nire buruaz utzita / zer ote dut nik orain ikusteko izan nintzen harekin?*].

Irudituko zaizu ez daukadala ibaien tentsio dramatikorik, ezta urmaelenik ere. Ez daukat sakontasunik: nigan ez zatekeen Nartziso sekula itoko. Baina, aldiz, orekan dagoen likido bat naiz \ seinaleen zirkuitu itxi bat. Ispilu-formen ordenakoa naiz, eta guztien artean bereizten naiz, seguru asko, nire bereizgarri urriengatik. Ageri naizen bezain ezdeusa naiz. Ia ezereza. Baina ikusiko duzu horrek badituela bere abantailak munduan eta kontatzera natorren okasioan. Halaber irudiko zaizu ez daukadala iraganik / orainik \ etorkizunik... Baina alderantziz da: denbora guztiek naukate ni.

1.

[Burrumba bat eta gero...]

Inguratzen nauenak ez du izenik. Esan nahi baita / ezin konta daiteke. Hain da sekretua, non landako egonaldian anonimo bihurtzea erabaki baitute presente dauden guztiek. Atean anonimatzan gaituzte, eta parteka. Mailaka. «Lehenik \ identitatea. Gero / berezitasunaren erremi hori ese. Azkenik \ memoria pertsonalen koadroa...». Eta halaxe pasatzen goaz / banan-banan \ prozesua osatu arte. Oso eroa dirudi, baina bolumena jaiste bezain sinplea da. Iragazkia deitzen diote / «bereizten duelako \ arruntetik / berezia eta preziatuena dena». Hori kontatzen dit pantailazo *osoguapo* batek, atearena egiten duenaren alboan panelarena egiten duen gailu batean flotatzen bezala dagoen *wellcome* batekin. Gustukoa nau pantailazoak, bistan da. «Oraindik ez zara anonimotu?» —galdetzen dit \ distiraz gainezka. «Zera...Susmoa dut ezin dudala izan orain naizena baino anonimoagoa» —erantzuten diot. «Iruditzen zitzaidan bai» — eta barre egiten du, pantaila betean. Azpitik pasatzen dit anonimazioen eskuliburua / zeinak baitu izenburua AA [«Animatu – Anonimotu»]. Begiratu egiten dut. Izugarri dibertigarria da. Anonimotu ziren ospetsuen aurretiko eta ondorengo marrazkitxoak daude. 'Aurretik' bertsioan izerdituta marraztu dituzte, eta kopeta zimurtuta [erretzaile ohi psikopaten modura] eta 'ondoren' bertsioakoei ileordea eta eguzkitako betaurrekoak jantzi dizkiete. Erreportaje grafiko zirrargarri bat dago gastronomia anonimoari buruz, erakusten duena ingeles xef ospetsu baten bertsio anonimoa, ileordea eta eguzkitako betaurrekoak jantzita, kanbodiak barazki denda batean sartzen eta berak zer den ez dakizkien gauza guztiak eskutadaka erosten. Badira gomendio oso praktikoak anonimotze

inteligente baterako [«nola desitxuratu zure sinadura zazpi urratsetan» edo «nola aditu, hitz egin ez diezazuten»]. Badago poesia anonimoa, eta baita zure ahaide maiteak anonimotzera bultzatzeko saioak ere. «Ohar serioak» orrialdera noa. Irakurtzen dut anonimotu ondoren inori gerta dakioken gauzarik okerrena dela izan zen horren eskema hutsean gelditzea. «Baina hori kristorena da» —diot, txantxetan. Eta pantailazoak erantzuten du: «bai horixe».

Ospakizun anonimoen batzorde baten buru izateko itxura duten batzuek anonimoaren adibide modura jartzen naute eskola-ume perbertitu batzuen aurrean \ zeinak baitaramatzate soinean *blue monday* inpermeableak eta erabiltzen baitituzte eta parranda-gogoa duten katiuskak. Niregana datoz eskola-umeak. Inguratzen naute. Nigan zipriztinka hasten dira. Ustez, gustatu egin beharko litzaidake hau. [Esan zidaten: «ez nabarmendu... Izan jarrera ona... Men egin esaten dizutenari. Eman atsegin...»]. Plisti-plasta. Eskola-umeek leporatzen didate gutxi zipriztintzen dudala. Plisti-plasta. Ahal dudana egiten dut nik. Plisti-plasta. [«Eta, batez ere, hitzik ere ez»]. Plisti-plasta. Benetan, ahal dudana egiten dut... Plisti-plasta... Nik... Plisti-plasta... Plisti-plasta... Plisti-plasta...

Tira / ba bai \ misio sekretuan nabilela. Kito. Esan dut. Plisti-plasta.

2.

[24 ordu lehenago — narán ratán]

[...] «[*Exactoou*] dena da erotikoa eta irrikatsua boterearen [per]bertsio pasibo honetan; hori da laugarren galdera [*Nivel Cuatroou*]. Laugarren galderaz, tutik ez: kuarto txikira baztertuta gelditzen da [*cuartoou pequeñoou*]. Kuarto txikia muntatzailearen "irudiak nahasteko espazio itxiaren"⁹ kontrako tokia [*opuestoou*] da. Baina bada zerbait magnetikoa [*algoou magneticoou*] bien artean [eta bietan: irudiak dira zerbait hori]. Munduko etxe ustel guztietako kuarto txiki guztiak aireztatzea da [itxuraz] eginbehar nagusia espazio itxi horietan. Kuartoak aireztatzea: sar dadila airea, eta egin dezala Cristobal Rilke banderadunak bezala: korrika, korrika, korrika ["egunen artean / gauen artean \ egunen artean" / baina hemen, kuartoko txokoen artean... \ *del cuartoou*]».

Simplemente : aciremaren ahots irratidatza eta apur bat distortsionatua da [ohitura du bere ahotsaren doinuaren zimurtasuna modulatzeko Grungelizer efektuaz edo gisa horretako efektu batez, hura arkeologizatze eta *Kristo aurreko* halako estilo batez hornitzeko]. ITAk

⁹ Honela izendatu zuen Usue Arrietak: «espazio itxiak». Sabine Groenewegenek, berriz, deitu zien «erretiratze-espazioak» zinemaren produkzio-egitura hiper hierarkizatuetatik bereiziak / aldenduak. Une batez nire buruari galdetu [planteatu] nion erretiratze-espazio horiek erresistentziaren nozioarekin loturarik izan lezaketen.

orain egun batzuk antolatutako 4. Asanbleako bere mintzaldiari dagokio / asanblearen helburua zen Kontra Imajinalaren gaineko jarrerak eta gogoetak bateratzea.¹⁰

ITako pare bat kidek helarazi didate dokumentu hau.

Esaten didate Simplemente : aciremA desagertu egin dela. Eskatzen didate hura bilatzeko. Nik galdetzen diet non bilatu. Esaten diet ez dudala ezer ulertzen \ ezta bilera hau bera ere. Galdetzen diet zergatik aukeratu nauten ni. Esaten didate ezin didatela eman arrazoirik. Kausen naturalizazioa besterik ezin didate eskaini. Ez didatela gomendatzen kausen naturalizazioa. Baina eskain diezadaketela. Esaten diet oso nahasia dirudiela guztiak. Galdetzen didate ea irratibizitu ote nuen dokumentua amaierara arte. Esaten diet oso berria gertatzen zaidala irratibizitzearena. Bat-batean mozten naute: «hitz egiteko modu bat besterik ez da».

Egia: ez nuen dokumentua osorik irratibizitu¹¹. Eta jarraitu egiten du dokumentuak. Simplemente : aciremAren mintzaldia txori saldo baten modura zabaltzen da asanbleako krepuskulu-espazio zabalean barrena. Mintzatzen da *Odysseyri* buruz [Sabine Groenewegenen filma / zeinari buruz esaten baitidate ITAkoek: «misterio honen kristalezko bihotza da»].

«Baina zer misterio eta zer...?» —esaten diet putzu batek isla dezakeen harrimen guztiaz. Orduan oraindik ez dakit Simplemente : aciremA *Odysseyren* proiektioan izan zela Alhondegi zaharreko auditorioan \ azaroko arratsalde hartan, non [proiektioaz gainera] euria bota baitzuen zinez narán ratáneko arima guztietan.

Oso sakona da Simplemente : aciremAk ITako kideen entzuleriari botatzen dizkion hitzek eragiten didaten arrastoa \ bitxia badirudi ere putzu batek sakontasunaz hitz egitea.

Esango banu haiek irratibizitzea haiek gogoratzea bezala dela / gezurra esango nuke. Kontuak badu oroitzapen batean sekula sentitu ez dudan moduko halako intimitate bat [zeinak eskaintzen baitu konparazioan bizipenaren apaltze bikoitzaren moduko irudi bat]. Gehiago

¹⁰ Kontra Imajinala [edo Kontraimajinala] irudi askatuak berrerakartzeko boterearen erreakzio bat da, funtsean. Itxuraz, manifestazio barreiatu eta autonomoak dira, zeinetan jendea elkartzen baita askotariko arrazoiengatik. Konfinamendu Handiaren ondoren lehertutako eromenaren harira sortutako taldeak dira gehienak.

¹¹ Irratibizitzea neologismo zabar bat besterik ez da, zentzuak alboratzen dituen eta zuzenean irudi eta soinu mental gisa ezartzen den atxikitze baten bidezko datu-jasotzea adierazteko erabilia. Irratiidazketako obskripzioen bidez egiten da. Hiru simulaziok parte hartzen dute horretan. Horixe da ITA erakundeak irudien ordezkotako gisa erabiltzea onartu zuen bakarra / baina aurrez eztabaida izugarri luzeak izan ziren erabakitzeak ea [azken batean] ez ote zen haien erabilerarekin sustatzen ari «irratibizipenen» eskubide eta askatasunak urratzen ari zirela uste zuten haien guztien [gutxiengo bat zinez] etorkizuneko eszizio bat [haien bozeramaileak adierazi zuen: «ile batek eztarrian halakoxe traba sortzen digu»].

hautematen ditut memoria-erritmo batean zeinetan haren ahotsak agerrarazten baitu filma, Klenckeren erraldoitasunaren atlas bateko laminak pasatze makal batean bezala.

Esaten du:

«*Odyssey*ren lehen irudiak ikusten nituen bitartean pentsatu nuen Diderotek Europako Egipto modura deskribatu zituen lurralde hondoratu haietan ["non soroak zeharka baitaitezke txalupan"] eta itsasoarekin eta hark dena uholdetzeko eta hondatzeko ahalmenarekin duen erlazioan».

[...]

»Filma abusu polizial baten biktimak egindako kontakizunean oinarrituta dago [ez halabeharrez]. Ez dago irudirik. Ahotsa eta tarteko tituluak baino ez. Kontakizun horretan, bi alderdi nabarmentzen dira. Bat igerian dago. Bestea, berriz, astuna da eta hondoratu egiten da. Igerian gelditzen dena abusuaren deskribapenaren argitasuna da [igerian gelditzen den gorpu bat bezain agerikoa]. Pluralean mintzo da kontalaria: *Sinterklaasfeest* ospatzeko urtero egiten den desfilea igaro zain daude. San Nikolas festa da [abenduan hasieran ospatzen dute Holandako hiri askotan]. San Nikolas hori ile luze eta bizar zuriko gotzain modura irudikatua ageri da \ gotzain mitraz / jantzi gorriaz eta isilik. Elezaharrak kontatzen du Madriletik edo Alacantetik datorrela. Aireportura iritsi eta *Wie Zoet is Krijgt Alles* [Manolo Escobarren *Viva Españaren* bertsio bat] joz orkestra lagun duela Amerigo izeneko zaldi baten gainean desfilatzen du Sinterklaasek. Atzetik du, oinez, aurpegia beltzez margotua duten pajeen jarraigo bat, zeinei baiteritze *Zwarte Piet* [«Pedro Beltza»]. Kontalariak kontatzen digun lehenengo gauza da beren helburua dela parte-hartzaileekin hitz egitea eta "ikertzea zerk bultzatzen dituen beren burua beltzez margotzera edo hori justifikatzera edo haurrak beltzez margotzera edo irudi hori erakusten duten opariak erostera". Ekintzaileak dira \ protesta-ekimen bat egiten ari dira / eta halaxe esan diote poliziarri. Poliziak ez du horretan inolako arazorik ikusten.¹² Baina, halako batean, amerikar ikasle baten arreta erakartzen dute, eta

¹² Baina [hain zuzen ere] poliziak esatean «ez duela inolako arazorik ikusten han egotean» badirudi esaten ari dela baimentzen diela han egotea \ beraiena balitz bezala desfilera nor joan daitekeen eta nor ez erabakitze eskumena. Agentziaren zerbitzuaren nahasmen erabatekoa da: nahasmen hori zeinaren arabera askotan poliziak bere egiten baitu botere hori zeina baitagokie / berez \ herritarrei. Izugarri biolentzia da subiranotasunaren bahiketa hori sentitzea. Eta polizia ez soilik da horren jakitun are gehiago onartu egiten du / bere gain hartzen du \ performatu egiten du eta bere performancearen ofizializazio etengabeak ahalbidetzen dion ahalduzetik jarduten du. Bestalde: ez da jada poliziaren kargekin daramagula aste osoa [Linarenen: polizia hobea aldarrikatzen duten manifestarien kontra / Bartzelonan \ Valentzian / Madrilan eta beste hiri askotan: Pablo Hasél espetxeratzearren eta Mozal Legearen kontra protestan ari ziren manifestarien kontra]: bart gauean bertan iskanbila izan zen [beste behin ere] San Frantzisko kalean, marokoar jatorriko mutil bat atxilotu zutela-eta, han elkartutako bi polizia-gorputzek [udaltzaingoak eta ertzaintzak] beharrezkoa iritzi ziotelako hogeitak agentetik gorako eta lauzpabost patruila-autoko operatiboa antolatzea. Eta azkenean [gainera] alde egin genezan presatzen gintuzten. Biolentzia hura lasaitasunez onartu beharko bagenu bezala. Bere horretan utzi. Ez baitu gurekin zerikusirik. Ez kezkatu agente jauna \ jarraitu gizajo hori txikitzen / ibil dadila kalea larri \ fatxadak patruilen urdin karrankariak jota / ez du-eta gurekin zerikusirik. Ibil dadila jendea beldurtuta \ espaloietan pilatuta / bere burua ikusiz lurrean oinperatuta oihuka ari den

argazki bat ateratzen die. Ezusteko erreakzio bat eragiten du horrek *politiean*. Ekintzaileei esaten diete alde egiteko \ baina uko egiten diote: eskubidea dute han gelditzeko. Orduan, agente talde handi batek inguratzen ditu eta aitaren batean / hitzik ere esan gabe \ heldu egiten diete / lurrera botatzen dituzte eta piperbeltzeko espraiz ziprztintzen dituzte. Kontalariak, orduan, kontatzen digu: "Gure abokatua saiatu da argitzen baimenduta ez zegoen zer egin ote dugun. Holandako telebista publikoko ekipo batek bilera bat grabatu du alkatearen \ fiskalaren eta poliziaburuaren artekoa. Elkarrekin erabakitzen ari ziren desfilearen ibilbidea / kamerek egon behar zuten tokia barne \ poliziak arreta non jarri behar zuten adierazten zuen eskema batekin. Horrek guztiak erakusten zuena zen emititzen diren irudiekiko arreta enfatiko bat".

»Irudiak dira igerian daudenak. Edo hobeto esanda: irudien arriskugarritasun itzelaren inpresio oso bizi bat... [boterearentzat arriskutsuak dira]. Eta ez dugu oraindik inolako irudirik ikusi. Baina hauxe esaten digute filma hasi orduko: boterea irudien beldur dela».

«Pisua duena...» —Simplemente : aciremA une batez isildu da hemen. Zigarro bat ateratzen du. Pizten du, eta erretzea debekatuta dagoela gogorarazten dion ohartarazpen bat irratibizi dudala uste dut atzean. Baina Simplemente : aciremAk ez dio entzun, nonbait. Kezko eratzun batzuk bota eta airean goratzen ikusi ondoren / jarraitzen du:

«Igeri gelditzen den horren beraren biki siniestro baten modukoa da...» —etena— «hondoratzen dena. Botereak irudiei dien beldurrak \ bere ifrentzua topatzen du...» —etena— «hondoratzen den horretan. Orduan, egin beharrekoa egiten du filmak: murgildu. Arrisku-korrante horren bila doa. Hor, filmak inplikazio-mugimendu erabakigarri bat egiten du: bere kuarto txikia aireztatu. Baina aireztatzeko, inkognitak aurkitu behar ditu lehenik / jakin zer ezkututzen duen \ zer duen bere baitan itxirik / zer gordetzen duen».

Aurrerago, *La Jetée* filmaren pasarte bat erakusten du \ Chris Markerren film mitikoarena [mitikoa, ez baitzuen askatua izateko premiarik izan sekula: hasieratik izan ziren haren irudiak askeak]. Eta aipatzen du «kanpotasun dibertigarri bat erabakitzeko zientzia-fikzioko artefaktu narratibo bat» —Eduardo Mendozaren *Sin noticias de Gurben* bezala—. «Elkarrizketa bat, bi ikertzailearen artekoa, zeinak baitatoz bestetasun erradikal batetik: beste planeta batetik /

zorigaitzoko horrengan islatuta \ ez baitu gurekin zerikusirik. Gu han zehar genbiltzan besterik gabe [eta beste aldera begiratu beharra dago, ezta?]. Guk ez dugu saiatu behar soilik tentsioen nahas-mahas horrek [zeinaren eragilea baita / azken batean \ uniformedunen talde armatu bat den horren agerpen proportziorik gabekoak] eragin ez diezagun / eta segurtasunik ezez bete gaitzan \ lasaitasuna urratu ez diezagun / are gutxiago moralki asaldatu eta pentsaraz diezagun hutsaren hurrengoa garelako abusuak gure muturren aurrean gerta daitezen uzteagatik. Aski dugu begirada bidegabekeria horretatik aldentzea. Ah \ eta ordaintzea.

beste galaxia batetik [akaso] beste etorkizun batetik» —eta elkarrizketaren zati bat aipatzen du:

«Baina nor ari zaigu seinale hauek bidaltzen? —galdetzen du bietako batek, aurreko irudiei buruz [filmaren gorputza osatzen duen artxiboko materiala]. Eta besteak erantzuten du: "Makinak"...

—Makinekin hitz egin genezake, orduan?

—Zaharregiak. Beraiek egin zituzten.

—Zoragarri».

Eta aretoan zabaltzen da zurrumurru bat... «Zoragarri!» errepikatzen dutenena.

Jarraian, itsasoaz mintzo da. Erritmo batez. Zati honek liluratu egiten nau. «Niretzat, olatuen zurrumuruarekin hasten den irudi iritsezin bat da itsasoa» —dio \ eta urezkoa naizelako baino ez dut hunkiturik negar egin hura entzutean. Olatuak dira putzu batek itsasoarekiko miresten dituen hiru gauzetako bat. Beste biak dira itsas espezieak eta amildegia: «txalupetan itsasora jaisten direnek/ ur handitan merkataritzan dabiltzanek \ itsasoan ikusten dituzte Jainkoaren egintzak eta haren miragarriak». ¹³ Istorio gutxi kontatzen dira putzuei buruz. Bada, hara, / eredu berari jarraitzen diote ia guztiek: bazen behin putzu bat oso itsasnahia... *Mais... Tant pis pour la flaque qui si trouve mer...*

«Esango nuke filmean badirela gutxienez hiru motibo hurrenez hurren agertzen direnak eta filma itsasaldien erritmoan egituratzen dutenak. Olatuen erritmoan.

»Argiena [ikuspegi politikotik] *Zwarte Pieten* irudian egiten den *blackfacearen* salaketa da. Filmak erakusten digu sistema sozial batek nola irudikatzen dituen era horretako ospakizunak beretzat. Haren historiako zenbait unetako irudiak erakusten ditu. Eta ondorioa da antzezpena ez dela aldatzen ez uholde baten hondamendiaren ondoren \ SS germaniarren uniforme beltzez inguraturik / ez *welfarearen* goraldian: beti da haur zoriontsuen horma bat. "Afektuen kontrola" deritzo filmak».

Asanblea osorik hasten da euforiaz txaloka / ITA oro har baita afektuen auziarekiko oso sentibera. Afektuzkoak izan ziren [hain zuzen] bere lehen efektu-kolpeak. Ahaztezina [esaterako] Herensugeen haranaren [Nemegten arroan] eta Altàiko mendikatearen artean barreiatutako kolonia imagotentziarioen eraso. Ofizialki «ikerketa teknologikoko

¹³Doilorren beren istorioetan [Arthur Orton izenez jaiotako Tom Castro zelako batenean] Borgesek salmo hori aipatzen du baina nik uste dut gezurra dela / pena handiko haurtzaro bat dela Borgesek aipatzen duena.

nazioarteko zentroak» baziren ere [«Montaña de Azúcar» izeneko enpresa batek administratuak], erabateko zentro imagotentziarioen modura funtzionatzen zuten \ giltzapetutako irudiak afektuz esplotatzen zituztelarik lau fabrika-modulutan: egunez afektuz galkatzen zituzten, kotoizko hodeiak bezala harrotu arte, eta gauzez begiztan erreproduzitzen zituzten eta galaxia osora barreiatzen zituzten beren uhin harroak.

Simplemente : aciremA isilik dago, aretoan zalaparta bengala baten dirdira bezala itzal dadin zain.

«Motiborik telurikoena itsasoa bera da» —dio— «zeinak balio baitu substantzia metaforiko gisa. Izenburuak aipatzen duen bidaiaren dialektika hori aldiaren behin berreskuratzeko erabiltzen du filmak: *Odyssey...*»

Dyssey... Dyssey... Dyssey... [oihartzun-efektua].

«Pentsatzen dut noizbait odisea batean murgilduta egon diren haien itzultzeko irrikan»...

Orduan kontatzen du Holandar Alderriaren elezaharra / itsasontzi fantasma bat Jainkoak zigortua Itxaropen Oneko Lurmuturraren eta Javako uhartearen artean betirako noraezean ibiltzera.

ITakoek azaldu didate bere mintzaldia prestatzeko erabiltzen ari den lehen oharretan agertzen dela Peneloperen izena. Filmaren izenburua baliatu nahi du bere proiektu fan[z]inikoaren haria nahaspilatu eta askatu besterik egiten ez den gau amaigabe horiez hitz egiteko. «Irudimenaren mugimendu iraunkorra itsasoa bezalakoa da» —idatzia zuen— Eta Penelopek [«hari nabigatzailearenak»] «erronka botatzen dio iraunkortasun horren maiztasunari, erritmo propio batez». Baina dena da konplexuegia ekintzaileen auditorio baten aurrean botatzeko [«gatatzatzaile» modura definitzen badute ere haiek beren burua... azaltzen luzea da... pasibistak ez baztertzeko... etab.]. Eta, hala, azkenean ez du aipatzen. Wagnerren operan oinarritzen da.

Holandarrak [itsasontzia goraino beterik altxorrez eta aberastasunez \ zeinak izan baitziren - asko-imaginatu-beharrik-ez-dagoen tokian espoliatuak eta arpilatuak] aberri bat bilatzen du hara itzuli eta han uzteko harrapakin hura. Elezaharrak gorputz bat eskatzen du krimen estalien bateratze hori sublimatzeko askatasun-kantuez eta fantasia australen azpian ezkutatutako abariziez. Maitasun askatzailea deritzo horri [erromantikoki]. Gaur zerga-erregulazio esango litzaioke akaso. Orduan, Senta ezagutzen dugu. Apaiz-jarleku batean etzanda / inorako bistarik ez duen gela handi batean \ Senta iruten ari da eta ameslari

begiratzen dio pintura bati zeinak kontaktzen baitu holandar aldarriaren madarikazioa [hau da: haren aberri-premia: hau da: diru hura guztia biltzeko borondatea, non eta toki batean zeinetan / denborarekin \ jarriko baitiote bere izena kale bati eta zeinetan haziko baitira bere seme-alabak beste batzuk esplotatuz]. Halaxe, Sentak erabakitzen du marinel tristearen askapena haragitzea. Haragituko duena da XIX. mendeko nazionalismoaren eta gizarte industrialaren sublimazio prototipiko bat: bihurtuko da birtualtasun / alegoria: bera izango da transakzioa. Senta da Penelope, Holandarraren istorioan [«bertsio txar bat: in-bertsio bat» — esaten du \ bere baitarako / Simplemente : aciremAk]. Baina orain ez du bakarrik iruten. Iruleen koru bat du lagun [transakzio soziala]: *Summ' und brumm' \ du gutes Rädchen / [munter] munter dreh' dich um! \ [Spinne] spinne tausend Fädchen / [gutes Rädchen] summ' und brumm'!* — «Burrumba eta hotsa \ goru zintzoa / [jiratu] jiratu zure buruaren inguruan! \ i[Irun] irun mila hari / [gori zintzoa] burrunba eta hotsa!». ¹⁴ Puntu honetan \ Simplemente : aciremA nahastu egin da istorioekin eta harira jotzea erabakitzen du: ez dago odisearik [ez antzinakorik ez modernorik] itzulerarik gabe. «*Et non plus ultra sine plusvalor*».

«Inongo inbertsiogilek / inongo mailegarik \ inongo bankarik / ez zuen sekula aski izan Huelvako gauza soil ez».

[Txaloak].

«Filmean errepikatzen den gairik birtualena monarkiarena da» \ dio orduan. «Birtualtasunaz ari naizenean Erdi Aroko teologiari buruzko eta erregearen gorputzaren izaera bikoitzari buruzko Kantorowicz testu horri buruz ari naiz. Gorputz humano eta hilkorra, beste edozeinena bezalakoa, baina, aldi berean, maiestate batena zeinak gaitzen baititu ez soilik bizitza eta heriotza [\"erregea hil da / bizi bedi erregea\"] baizik eta baita sistemak ere [feudaletik finantzariora, tartean dela industrial], monarkia deritzon errealitatearen forma kamuts horren bidez [zeina ez baitute mendeek oraindik behar bezain barregarri utzi]. Hor ikusten dugu Julianaren ama tronutik abdikatzeko alabaren alde \ jauregiko balkoian biak: zein eszena zoragarri eta zein enkoadraketa ongietorria Julianaren aurpegi liluratuan \ non igartzen baitzaio koroa jasotzean [dirudienez] esan zuen hura, \"nor naiz ni hau egiteko?\"». Agertzen den eszena guztietan «disimuluaren antzezle txar hori» / Simplemente : aciremA ikusten du «filmaren disimulurik gabeko interes bat monarkiaren ideia merkantziaren ideiarekin bat etorrarazteko».

¹⁴ *Mein Schatz da draußen \ auf dem Meer / im Süden er viel Gold gewinnt \ ach, gutes Rädchen / saus' noch mehr! \ Er gibt's dem Kind / wenn's fleißig spinnt. \ Spinn! Spinn! / Fleißig [Mädchen]! \ Brumm! Summ! / Gutes Rädchen! \ Tra la ra la... usw.*

«Nire maitea dabil / Hego itsasoan \ urrea ugari irabazte / goru zintzoa \ jiratu bizkor. / Ekarriko dio bere neskatxari \ ongi iruten badu. / Irun! Irun! \ Ekin [neskak]! / Goru zintzoa \ burrunba eta hotsa! / Tra-la-ra-la... etc».

Holandar Alderraia [Der Fliegende Holländer - 1843] operako II. Ekitaldiko 1. Eszena—Richard Wagnerren hitzak eta musika.

[...]

Gero zailagoa egin zitzaidan ulertzea... Boterearen [per]bertsio pasioaz zerbait... [«birtualitate bat»] eta... abar. «Azken batean: dena dago laugarren galderaren inguruan ardaztuta». Eta... isiltasun luze bat. Ez deserosoa baina bai ikusminezkoa. Zoragarria. Hezea. Sauna bat bezalakoa. Publikoan norbait altxatzen da orduan, eta esaten du: «Zer esan nahi duzu laugarren galderarekin?». —«Hori...» —animatu da beste bat— «Zein da laugarren galdera?» Eta beste batek ere parte hartu du / altxaturik horrek ere: «Bai \ mesedez / esaguzu: «Zer galdera da laugarren galdera?». Erantzunarekiko interesa duenik ere bada: «Laugarren galderaren erantzuna... laugarren erantzuna da?».

Dokumentua ezustekoan ixten da [esaten den moduan: supituki]. ITAkoek kontaktzen didate Kontraimajinaleko sator bat zegoela asanblean. Hain zuzen ere, halako kaos txiki bat antolatuz zuten Simplemente : aciremA laugarren galderari buruz zerbait esatera zihoan unean. Pla-pla-plagioaz salatu zuen. [Bai: urduri zegoen]. Eta oihukatuz «*qua-qua-quadratisch - pra-pra-praktisch - gggut*» / jaurti zuen airera bonba kirasdun ketsu bat, gabonetako doinuen bertsioen bideoklipena, artzain txikiz mozorrotuta txokolatea irensten zuten haur ilehorien irudi *sufrituekin*. Berrito lasaitasuna nagusitu eta giroa saltoki handien kiratsa zerion ke pozoitsu hartaz garbitu zenean \ Simplemente : aciremA desagertuta zegoen.

3.

ITAkoek jakinarazten didate saiatu zela oharkabean igarotzen *Odysseyren* proiektzioan. Filmak asko inspiratu zuela kuarto txikiaren nozioa garatzeko.¹⁵ Oraindik zebilela kuarto txikiaren eta muntatzailearen espazio itxiaren arteko erlazio *frizzantearen* auziarekin. Gogora etorri zitzaiola *¿Dónde yace tu sonrisa escondida?* / Pedro Costaren filma zeinetan ikusten baitugu Danielle Huillet muntatzen *Sicilia!* [bitartean ari da Jean Marie Straub zigarroak erretzen \ altxatzen da / mugitzen da batetik bestera \ kokatzen da atearen alboan / hasten da ideiarekin existentzia eza aintzat hartzen dutenez gaizki esaka: arima piztu eta erretxin hori da, zeinarekin alderatuta baitirudi Huilletek *quadratisch - praktisch - gut*: bestalde \ ohikoa da —

¹⁵ Etxe askok ez dute egongelarik eta are gutxiago gonbidatuen gelarik / baina denek dute kuarto txikia. Etxe alemaniar \ suitzar eta austriar gehienetan sotoak betetzen du kuarto txikiaren funtzioa. Frantziako etxe askotan, berriz, bodegari atxikita egoten da. Andaluziako eremu batzuetan [orain ez dakit, baina antzina behintzat] kuartotxoa \ esaten zioten / sinpleki. Felipismoaren eskuin hegalarren pean [edo bi hegalen pean] neoliberal bihurtu zen aberatsen eta errentarien Espainia hura zeina hain eraginkorki [inkontzientziatz] erakutsi baitzuen *Historias del Kronen* izan zen eleberri on-txar haren film txar-on hark \ saiatu zen bere klase-mamuak ezkutatzeko, bihurtuz garbiketako kuarto txikia garbiketako langileen kuarto txiki. Kuarto txikiaren nozioa orobat hedatzen da pilaketa edo hondakin-geletara [zabor biltegiak / trastelekuak \ kuartoak]. Bere baitan biltzen du guregandik gure kabuz kanpo uzten dugun hori: ez soilik besteek ikus dezaten nahi ez dugun hori, geuk ere ikusi nahi ez dugun hori baizik. Horregatik ez da kuarto txikia espazio bolumetrikoa [edo ez, behintzat, hitzez hitzezko zentzuan] ezta psikologikoa ere, baizik eta [gehiago] espazio erretoriko bat. Adibidez, *Henry retrato de un asesino* (1986 - John McNaughton) filmean, maletina da kuarto txikia.

hala ere— norbaitek bere buruari su ematea onartzea, jakin badakienean suhiltzaileak hurbil dituela] baina ezin izan zuela gogoratu non ikusi zituen erabakigarrien iruditzen zitzaizkion Danielleren irudiak: irudi haiek non «baitago lorategi batean... eta zintzilikatzen baititu maindire zuriak». Irudi horiek gogoan dituela / esaten du ozen eta poesia irakurtzen dueneko intonazioaz: «film bat muntatzea: ez garbitzea eskuak, arropa baizik. Eta eguzkitan zabaltzea». Bere buruari galdetzen zion ea muntatzailearen espazio itxia izan ote zen jatorrian kuarto txiki bat muntatzaileak bere eskuez zehatz-mehatz garbitutakoa. «Ez ditu zoldeak laidotzen kuarto txikiko hormak \ zorua eta sabaia baizik hilotzek / gorpu erdi ustelek \ etxe bakoitzeko okerrenak... » —idazten du. Eta gogoratzen da orduan Bizar Urdinen gabinete debekatuaz Perraultek bildutako ipuin zaharrean. «Eta harturik giltza txikia ireki zuen gabineteko atea dardarka. Ez zuen hasieran ezer ikusi / itxita baitzeuden leihoak. Handik istant batzuetara hasi ziren gauzak nabarmentzen eta sumatu zuen zorua zegoela odol gatzatuz guztiz estalita eta hartan islatzen zirela zenbait hilda eta hornei loturik zeuden zenbait emakumeren gorpuak». Luzaroan jo zen ipuinaren irakasbideak emakumeen jakin-minaz ohartarazten zuela. Baina benetan ohartarazten [pentsatzen] zuen boterearen gune ustelduen existentziaz. Alderatu zituen [haren interpretatzaileak urteetan egon baitziren jakin-minaren gaiarekin tematuta] bitxikerien gabinete edo miragarrien kuartoekin. Aski zen ikustea Gustave Dorék ipuinari buruz egindako ilustrazioetako bat [Bizar Zurik \ begiak zuloetatik atera beharrean eta irrikaz ziztaka / begirada iltzatzen du neskaren eskuetan, gela debekatuko giltza hartzen duen bitartean] konturatzeko «jakin-minaren» zentzurik ezkutuena ez zegoela jarrera *komillatar-tean-femeninoan* baizik haren kosifikazioetan eta fetitxizazioetan eta haren «bitxikerien» bilduman. Jakin-minak gordetzen duen horretan. Bere buruari galdetzen zion ea horrez guztiaz gainera irakur ote zitekeen biolentzia hori beste hainbatetan emakumeen gorputzaren gaineko biolentzia erakutsi zen dimentsio sinboliko berean: bere buruari galdetzen zion \ azken batean / hildako haiek ez ote ziren izan emakume langileak / eta ez ote ziren izan emakume langileek hilak.

Jakina, kuarto txikiaren eta muntatzailearen espazio itxiaren arteko erlazioa bilatzean, bistakoa zen lan-kabinetan pentsatzea. Eta nahiz eta modu ordenagabea zetozkion irule konkortuen irudiak [zeinetan ikusi baitzituen Velázquezen koadro batekoak \ *La fábula de Aracne* / *Las Hilanderas* izenez ezaguna denekoak] tematuta jarraitzen zuen muntaketa irutearekin uztartzeko asmoan. Idazle modura ikusi behar zen Penelope. Eta prest zegoen makinaria industrialaren baitan sortzen den espiritu borrokalaria modura lantzeko muntatzailearen agerpena, eredu harturik Penelope idazlea. Horretarako, baztertu behar zuen \ egotzi behar zuen / garbitu behar zuen segidaren eta irutearen arteko erlazio oro. Simplemente : aciremarentzat, irutea doi-doi zen katebegi gaizki taxutuen arteko txinpartaren une burutsu bat. Eskertzen zuen irundegietako talde-sorkuntza femeninoaren xarma, ez tabakogileen \ kontserbagileen edo pospologileen arteko afektuen

komunitarizaziotik pentsa litekeena baino gehiago. Baina oso bestelakoa zen kasu batean eta bestean tartean zegoen objektua. Gorua zen emakume iruleen objektua / eta hark lotzen zituen emakume errotariekin eta ahozko kontakizunaren eta kantuaren zirkulartasunarekin. Sentimendu biziz [oso edertzat baitzuen] ikusi zuen Portugalgo telebistako 70etako saio batean [*Povo que canta* \ Michel Giacometti etnomusikologoarena] errotari zahar baten irudia, oinekin birarazten ari zena errotaren gurpila [oinez] aldi berean / neke handiz eta leher eginda \ kantatzen zuen bitartean *cantiga da roda* bat. Hala ere, bere ustez muntatzailearentzat beste bat zen objektua: mahaia. Eta mahaia [pentsatzen zuen] lotzen zuen idazlearekin eta kontakizun idatziarekin. Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* / aipatu zuen halako batean \ eta, zehazki, Jane Austenek bere eleberriak idatzen zuen egoera negargarriari buruz hitz egiten duena: egongelatxo batean/ igarobide batean edonoren bistan. « Kontu handiz ibiltzen zen zerbitzariak \ bisitariak / edo bere familiaz kanpoko beste inork susma ez zezan zertan zebilen » —esan zuen, haren iloba batek idatzitako memoriak aipatuz. Norbaitek eteten zuen aldi oro \ zertan ari zen ezkutatzen zuen / eskuizkribuak ezkutatzen zituen \ «xukapaper baten azpian gordetzen zituen» / eta beste alde batera begiratzen zuen. «Hura bai disimuluaren antzezle bikaina».

ITakoek [ordea] datu interesgarri bat eman zidaten azkenerako. Asanblean hitza hartu baino une batzuk lehenago \ Simplemente : aciremAk ozen aitortu zuen egundoko hutsegitea egin zuela. Aurpegira eraman zituen eskuak [*macaulay* tankeran] eta esan zuen:

—Bai tuntuna!

Bosgarren maila. Fusio Eremua.

[nadir perspektibaz beste aldera]

Orduan konturatzen naiz xehakatuta nagoela isilune baten baitan. narán ratáneko Humpty Dumpty naiz: *we sat on a wall / we had a great fall \ All the Queen's horses and all the Queen's men / Couldn't put us together again.*

Bai [egia da] a priori ez dirudi bizitza interesgarria [deritzon erakorik] dudanik. Putzu batek? Zorte ona izatera, Didi-Huberman pasatuko da txakurrez *avatartuta* eta miazkatu egingo nau [eta sekulako zortea izango litzakete: ikusi duzue inoiz nola edaten duen txakurrak eta zer egiten duen mihiarekin? Ez dago txakur batek bere mihiarekin egiten duena egiteko gai den idazketa sortzeko idazlerik].

Aurreko mailetan argitara ateratako gertaerak [batetik bira \ hirura, ondoren, eta hirutik laura / bitik pasatuta] ilundu egiten dira honetan. Hauxe da:

- a) okasio perfektua ulertzeko ez dagoela zer ulertu.
- b) okasio perfektua batzuek edozeri buruz erakusten duten ezaxola erradikal hori askatzeko.

Nik b) aukeratzen dut, eta aharrausi luze bat egiten dut. Nitaz gabetzeko izugarritzko gogo hartzen zait: eta lokartzen banaiz? Eta animalia batean *avatartzen* banaiz? [edo are hobeto: nerabe batean?] Bide batez: izugarritzko beroa egiten du narán ratánen. Mahaiak orduan dio bost maila edo gune daudela: esaten dit Lehen Mailan [...] Eta nik ez diot jada ulertzen. Zer esan nahi du? Esaten dit: gako modura emandako bost gako dira. Zer dio bost gakoei buruz ergel honek? Zer asmakizun ostia da hau? Zer ari naiz hemen, lagunekin egon beharrean merendero batean \ arratsean / batekin eta bestearekin nahiz biekin nahasian? [dagoeneko nerabe bihurtua naiz!]. Joder hau bero puta. [b) aukera hautatu dudalako hitz egiten dut horrela baina orain eman dezagun hautatu nuela a) aukera ez dago zer ulertu] Esaten dit: bost gako ulertzeko... Funtzionamendua? – interferitzen dut / pentsatuz zer erantzungo zukeen lehengo eguneko mutil azkar har zeinak esan baitzidan: zure ogitartekoa ematen badidazu nire piruleta probatzen utziko dizut [biontzako zoritxarrez, piruleta neraman nik ere egun hartan]. Bost gakoak izan litezke emakumeen bost adinak [orduan nire buruari galdetzen diot zergatik sortzen didan hotzikara «emakume» edo «gizon» erako hitzak artikulu zehaztuaz ikusteak: akaso aitaren batean sentitzen naizelako aldizkari neokatekumeno bateko ilustrazioa bezain parrokiala?]: bost adin: bost aro denbora irrealetan / iragan urrunetik etorkizun ezin urrugarritara [etorkizun bat, hau, zeina 'o'aren eta 't'aren artean 'n' letraren absentsia enblematikoak baizik ez baitu urruntzen ibai handi baten iruditik / korrontearen kontra nabigatzen dugun ibaiaren iruditik: beste etorkizun hori: bizitzaren ibaia, non baita

ezinezkoa gora egitea: etorkizun ezin urrungarrira ez da sekula iristen \ etorkizun ezin urrungarritik ez da itzultzen / 'n' letra da etorkizun bat zein bestea alde edo moldegaraitzeko hamaikagarren ahalegina]. Bost aroak dira: burdin aroa / erromatar aroa \ makina aroa / makrodatuen aroa \ lambda aroa. Hara / ezaguna gertatzen zait hau. Bosgarren maila honek ertzera eramaten nauen kadentzia islatzen du. *MakinaHarriaLandareaAnimaliatxoa*. Interfonoa jo dute [zer interfono?] Ah ez / baina nonbaitetik interferitzen dute [dena da askoz ere nahasgarriagoa nadir perspektibaz beste aldera]. Nire burua entzuten dut esanez «hitz egin dezakegu patxadaz?». Entzuten du esaten didatela «irten hortik». Nire burua entzuten dut erantzuten ez diedala guztiz ongi ulertzen. Entzuten dut esaten didatela «ez pentsatu gehiago». «Nola?» [ez dakit nori ari natzaion / zenbati ari natzaien]. Agintari-ahotsa «irteteko!». Ahots dramatiko «egin kasu [laztana]». Tutu-uhinen zalapartan apur bat galdutako ahotsak «ez dago ezer egiterik» «ez da irtenbiderik» «altxatzen utziko nioke amaierara arte» «avatarrek ez dute amairik » «serio?» «amets gaiztorik gaiztoenean *avatartuko* litzateke: digituaren bakardade infinituan».

Eta hala ere dena da askoz ere sinpleagoa: sekula ez diot utzi putzu izateari. Ahots horiek guztiak nituen ez hain zuzen nire gainean. Zirkulu zentrokidetan hedatutako uhinak ziren.

Aldi berean iristen zait txosten bat L.A. ikertzaile kideari eskatu niona / L, Leiregatik, eta A, Aramberrigatik. Bost aroetako batean parte hartu zuen. Esaten dit irudi beraz hasi eta amaitu zela proiektzioa: begia. Esaten dit bi irudi horien artean izan zirela zezekaltzeak / martxa feministak \ jainko / jainkosei buruzko galderak / coca cola latak eta festa futuristak «Virgen de la Zarza» ama birjina bereziki goretsiz.

Esaten dit badirela errepikatzen diren zenbait irudi. Baina oso bestelako tokia hartzen dutela agertzen diren oro. «Beti arropa beraz jantzita dabilen norbaiti buruzko ipuina kontatzea bezala da».

Aitortzen dit beldurra eman ziola pentsatzeak bete egin zitekeela aroetako azkenari zegokion kontakizuna [Lambda aroa / K.o. 3000. urtekoa]. Eta gehitzen du: «bitxiki, aretoko talderik gazteenak landua zen».

Berrito datorkit gogora *La Jetée*, irakurtzen dudanean nola izan zuen proiektzioan sentsazio bat tunel batean egotekoa bezalako. «Tunel metaliko bat, gainezkatzeak dituena bidean zehar eta bere irudien erreketaz betetzen dena». Esaten du Alhóndigak beti ematen diola halako «lurpeko sentsazio bat».

Bere edizio-prozesu sonoroaz hitz egiten dit. Burdin Aroa egokitu zitzaion bere taldeari [K.a. 1000. urtea]. Jaitsi ziren komunetara, eta inbokaziozko erritual baten soinua grabatu zuten jakiteko nora eramango ote zituen material haren aurkikuntzak. Horregatik egin behar izan zuten erritual bat. Erantzi zituzten maskarak, eta itzali argiak. Emakume-ahots batek euskaraz inbokatzen zuen burdina eta hark herrian izandako presentzia: *ireki zuloa ireki zuloa atera atera atera ezpata eraiki atera burdina...* [Bitartean] kideak arkatz batekin xaboi-ontzia jotzen eta zezelka ari ziren. Apur bat beldurtuta atera ziren. Egun hartan bertan ezagutu zuten elkar, eta erritual bat egin zuten komunetan, aurpegia agerian. Amaitzeko, esaten dit: «Urrunetik banentor bezala iritsi nintzen ni etxera».

EPILOGOA

Fusio Eremua (playlistA)